

SOROTAN BELE

Sorotan Bele taldea 1992an sortu zen eta 1996an desagertu zen. Partaideak Lezo eta Hondarribikoak ziren. Zazpi taldekideez osatuta zegoen. Gehienak 17-18 urte ingurukoak ziren.

Taldekideak hauek ziren: Gorka Sarriegi (ahotsa eta gitarra jolea), Mikel Errazkin (flauta jolea), Ritxi Salaberria (baxua jolea), Aitor Etxaniz (bateria jolea), Ixiar Amiano (teklatu jolea, eta piano jolea), Urbil Artola (ahotsa eta gitarra jolea) eta Mikel Izulain (biolin jolea).

Disko hauek atera zituzten: Sorotan Bele, Mundu Hegian, Victoria Eugenia Antzokian Zuzenean eta Jonen Kezkak

Kanta ospetsuak: arratsalde honetan, Mariñelaren zai, zortzi orduko ekaitza...

Kanta: Mariñelaren Zai

<https://www.youtube.com/watch?v=ip4dTIKUqc4>

Letra

Arotzak zuen alaba bat:

Zan herriko xarmangarriena.

Bi gizonek nahi zuten jabe izan

Haren bihotzaz... nola esan?

Zer dun, zer dun, ene alaba?

Marinela maite dut aita

Ez al dun ulertzen? Ezinezkoa da!

Jauntxoa da hiretzat maitia.

Orduan egarriak denak ziren bat

Maitasun ukatuarentzat.

Jauntxoa dator hire esku bila.

Marinela Irlandara doa.

Hala izan tzan, ezkontz behartua.

Aberatsik ez ziren han.

Ta guztiak dantzan, guztiak alai.

Mail ezberdinak ahaztuaz.

Zer dun, zer dun, ene alaba?

Marinela maite dut, aita.

Ez al dun ulertzen? Ezinezkoa da,

Jauntxoaren emaztea zara!

Gaur egun oraindik ikus dezakegu

Alaba hura leihoan

Marinelaren zai, zai.

Itsasoan du itxaropena.

Egileak: Eider Zamora eta Kiara Gutiérrez

